


# Usurbilgo zaintza ekosistema

ERALDAKETA BIDEAN





# HILABETEKARIA

Usurbilgo udalak **zaintza ardatz** izango duen prozesu parte hartzaileari ekin zion 2021eko martxoan. Egun, prozesuari jarraiki, **eraldaketa bidean** diardu herriak. Zaintza hezurmamitzen duen Lan Talde Operatibo ezberdinetan banaturik, pausoz-pauso eta Matia Institutuaren bidelaguntzaz, Usurbilgo **Zaintza Ekosistemaren definizio eta eraikuntza kolektiboan** darrai buru belarri.

Esku artean duzuen buletinak **prozesuaren lekukotza** jasotzeko sortua da. Bertan topatuko dituzue landutako korapiloak, emandako urratsak eta topaturiko oztopoko zein arrakastak.



# Talde Operatiboak

Eraldaketa burutu ahal izateko, zaintza ekosistema ezaugarritzen duen zutarri bakoitzeko Lantalde Operatibo bana sortu da, guztira, zazpi lantalde osatuaz:

1. **Zerbitzuen** talde operatiboa

2. **Ehun komunitarioaren** talde operatiboa

3. **Pertsona erabiltzaileen** talde operatiboa

4. **Zaintzaile afektiboen** talde operatiboa

5. **Gizarte Zerbitzuen** talde operatiboa

6. Talde **estrategikoa**

7. Talde **eragilea**



# Saioak



# EHUN KOMUNITARIOA

- 2022/05/09

# ZAINZAILA AFEKTIBOAK

- 2022/05/10

## PERTSONA ERABILTZAILEAK

- 2022/05/10

# ZERBITZUAK

- 2022/05/20

## GIZARTE ZERBITZUAK

- 2022/05/20

## LANTALDE ESTRATEGIKOA

- 2022/02/02
- 2022/04/03
- 2022/04/19
- 2022/05/13

# Zerbitzuen Talde Operatiboa

Taldea eratu, prozesu partehartzailean egindakoak partekatu eta Pertsona Ardatz duen Ereduaren gaiari sarrera eman nahi izan zaio lehen saioan. Zerbitzu anitzetako ordezkaritza izan zen bertan; eguneko arreta zerbitzua, eguneko zentroa, etxez-etxeko zerbitzua, etorkizuneko zaintzadun etxebizitzak eta zaintzen eremuan lan egiten duten herritar eta gizarte zerbitzuetako ordezkaritza batuaz. Saioaren abaguneak **zaintza zerbitzuei begirako esparru transbertsalak** sortzeko aukera eskaini zuen.

**Zerbitzu bakoitza sakontasunez ezagutzeko** talde dinamika oinarritu zen saioa, pertsona ardatzdun arreta eredua aurrera eramateko elkarrekiko indargune eta hobekuntza esparruak hausnartze bidean. Besteak beste, **zerbitzuen arteko komunikazioa**, zerbitzu barneko **tratuan ditugun mikro-adinkeriak** detektatzeko eta gainditzeko bideak, **etxez-etxeko arreta zerbitzuen** eraberritze abagunez... hausnartu zen. Begirada desberdinez osaturiko talde eragilea osatu zen eta elkar aitortzeko aukeran oinarrituta etorkizunerako pausoak zehazten jarraitzeko erronkarekin bukatu zen saioa.







# Gizarte zerbitzuen Talde Operatiboa

Talde anitza da, batetik, urte asko departamentuan daramatenak eta, bestetik, iritsi berriak. Lehen saioak **elkar hobeto ezagutu, elkarri lana aitortu** eta lan talde operatibo gisara egituratzeko oinarriak ezarri ziren bertan. Hausnarketarako beta izan zen gaur egungo egoera eta etorkizunera begirako pertsona ardatzdun arreta zerbitzu bati begira, dauden erronkak eta egiteko aurreikuspenak partekatuz. Bai lan taldearen egitekotan, zein zaintza ekosistema eratzeko garaian beraien egitekoaren garrantziaz jabetuza.

Azkenik, **zerbitzuen egokitzapenean dauden erronkak** azpimarratu dira, nagusiki **denbora eta baliabide aldekoak**. Zehazki:

“Etxebizitzetara joatea gure egitekoan ez da arrotza. Etxeetara joateak balorazioak egiteko beste ikuspuntu bat ematen digu, baina batzuetan egunerokotasunak janten gaitu eta ez dugu denborarik” (GZ1, 2020)



# Zaintzaile Afektiboen Talde Operatiboa

Zaintzaile afektiboen talde operatiboan lehen deialdira bi zaintzaile-senide azaldu ziren. Bertan, zaintza-zerbitzuei buruzko hausnarketak burutu zituzten bi ikuspegi oinarri hartuta: herriarena eta zaintzaileena.

**Senideek zaintzetan duten erantzukizuna azpimarratu** nahi dute, nahiz eta zaintzaile nagusia izan ala ez, ardura eta konpromezua izan beharko zuketela. Auzokoekin eta bizilagunekin duten zaintzarekin lotutako harremanei buruz hitz egin zen, eta **komunitateak zaintzan duen rolari** buruz hausnartzen hasi zen. Era berean, **zaintzan dauden genero-desberdintasunei** buruz ere hausnartu zen. Herri txikia izateak eskaintzen dituen abaguneak ere azpimarratu ziren, enpatia handia dagoela uste baitute orokorrean eta elkar ezagutzeko joera.





# Pertsona erabiltzaileen Talde Operatiboa

Pertsona erabiltzaileen lehen saioan bi partaide agertu ziren, deialdiaren erronkak azaleratu zirelarik. Hala izanda ere saioa oso saio mamitsua eta parte hartzailea izan zela baloratu zen. Pertsona erabiltzaileak jasotzen dituzten zaintza-zerbitzuei buruzko hausnarketak egiten hasi ziren. Nagusiki zerbitzu horiei buruz herriari eskaintzen zaion **informazioa** baloratu zen, baina baita **Etxez-etxeko zaintza zerbitzuak beraien inguruko senideengan eragiten zuen lasaitasunaz** ere. Bizilagunekiko eta auzoarekiko harremana eta zerbait behar denean laguntza eskatzeko aukerak aztertu ziren. Azpimarratu egin zuten harreman estuak zituztela, baina zaintzari zuzenean loturiko jarduerak ez zituztela bizilagunekin partekatzen.

Era berean, herri barruko harremanak aztertu ziren, batez ere belaunaldien artekoak eta horiek zaintzarekin duten harremana. **Auzo batzuetako azpiegitura eta instalazioei** buruz, batzuetatik mugitzeak ekartzen dituen oztopoak azpimarratu zituzten, zaintza-harremanak errazterako edo zailtzerako orduan duten garrantzia deitoratuz.



# Ehun komunitarioaren Talde Operatiboa

Komunitate bakar batean hainbat komunitate daudela argi dugu,

**komunitate anitzak** ditu Usurbilek eta denon artean **elkar aitortzea** ezinbestekotzat jotzen da. Bestalde hausnartzen da batasun "sentimendua baldin badago askoz ere aukera gehiago dago elkar laguntzeko" (EK1, 2022). Hortaz, sortu daiteke batasun eta nortasun sentimendua aniztasunetik?

Zaintzarekiko lanketa **etxebizitzetatik hastea** proposatzen da, lehena **bizilagunen artean laguntzeko sena** edo jarrera hura sortuaz.

Ekarpenen artean, **zaintza sarea** sortzea proposatzen da, zaintza sare hura koordinatuko duen espazio batekin batera.

Zailena, taldearen aburuz, **egunerokotasunari loturiko zaintzetan laguntza eskaintzea** da. Garai batean bizilagunek egiten zutena, eta pandemiak nolabait aktibatu zuen tokiko-sare moduko hura eratzea.

"Ez al da posible sortzea guneren bat non egongo diren arlo askotako jendea eta denon artean zerbait sortu elkar laguntzeko? Elkar zaindu, beste balore batzuk eman jendeari eta gettoak ekidin. Eta gazteak ta besteak ere integratu zaintza hortan. " (EK1, 2022)

**Zaintzen tribuaren** ideia ere aipatu zen, norberaren zaintza mota eta behar zehatzak errespetatuko dituen eredu eraikiaz. Kezka nagusietako bat **emakumeek zaintzekiko zuten lankarga birbanatzearena** izan zen, prozesuan ezinbesteko urratsa izanik.

Azken zalantza edo kezka modura **denbora**arena dugu, zehazki aipatzen da "Komuntatea aktibatzekeo jornada laborala jaitsi behar degu!" (EK1, 2022). Argatik, zaintza ekosistemak eratzeko garaian, antolakuntza eta saretzea gako nagusitzat jotzen dira.

Komunitatea beraren definizio bat eratzen hasiak dira. Hura familia eta administrazioaren arteko espazio modura definituaz, bata iristen ez dena eta bestea ere iristen ez den horretan, ardura sozialetik eragingo duena.



# Eraldaketa bidean...



[www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus)



[@usurbiludala](https://www.instagram.com/usurbiludala)



Potxoenea



Usurbilgo Udala

matia